Kontratuen erregistroa 2024ko apirilean

KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2024ko apirilean 40.310 pertsona kontratatu dira, iazko apirilean baino 2.360 gehiago (% 6,2ko igoera). Martxoarekin alderatuta, berriz, 10 pertsona gutxiago (% 0,02ko beherakada).

• SEXUA

Apirilean 20.049 gizon eta 20.261 emakume kontratatu dira. Aurreko urtearekin alderatuta, kontratazioak gora egin du bai gizonen artean bai emakumeen artean, zertxobait gutxiago emakumeen artean; % 6,1 (+1.159 emakume) eta % 6,4 gizonen artean (+1.201). Hileko konparaketan, gizonen kontratazioak -%0,27 egin du behera (-54); emakumeen kontratazioak, berriz, % 0,22 egin du gora (+44).

• ADINA

Kontratatutako pertsonen batez besteko adina 35,86 urtekoa da, eta txikiagoa da gizonen artean (35,75) emakumeen artean (35,97) baino. Kontratatutako pertsona gazteenak Araban izan dira (34,98 urte), eta helduenak, berriz, Bizkaian (36,21).

Laguntza-teknikarien profilekoak dira gazteenak, batez beste 33,16 urte baitituzte. Helduenak zuzendaritza-lanetarako kontratatutakoak dira, 44,35 urteko batez bestekoarekin. Lanaldi partzialerako kontratatutako pertsonak lanaldi osorako kontratatutakoak baino gazteagoak dira (34,59 urte eta 36,55 urte, hurrenez hurren). Kontratuaren iraupenaren arabera, kontratu mugagabeak dituzten pertsonen batez besteko adina aldi baterako kontratuak dituztenen batez bestekoa baino handiagoa da (36,36 vs 35,60).

• JATORRIA

2024ko Apirilean kontratatutako pertsonen % 20,9k atzerriko nazionalitatea du, iazko apirilean baino 1,3 puntu gehiago. Kontratatutako atzerritar guztietatik, % 55,6k Latinoamerikako herrialderen bateko nazionalitatea dute, % 12,7k Afrika iparraldekoa, % 11,2k Saharaz hegoaldeko Afrikakoa, % 7 Europako Erkidegotik kanpoko herrialderen batekoa, % 6,8 Asiakoa eta gainerako % 5,8 Europako Erkidegokoa. Bertakoak (35,76 urte) gazteagoak dira atzerritarrak (36,18 urte) baino. Kontratazio-bolumen jakin bat duten atzerritarren artean, Latinoamerikatik eta Ipar Afrikatik etorritakoak dira gazteenak, bi kasuetan 35,48 urterekin, eta Europako Erkidegotik kanpoko herrialderen batetik etorritakoak, berriz, helduenak, 37,63 urterekin.

Azken hilabetean, kontratazio-maila esanguratsua duten jatorrien artean, Europatik datozen pertsonen artean egin du behera kontratatutako pertsonen kopuruak; 25 pertsona gutxiagorekin (-%4,8) Europako Erkidegokoak direnen kasuan, eta 14 gutxiago Erkidegokoak ez direnetan (-%2,3). Aitzitik, balio absolutuetan zein erlatiboetan gehien hazi den pertsona-taldea Saharaz hegoaldeko Afrikakoa da: 119 pertsona gehiago kontratatu dira eta % 14,5eko hazkundea izan dute.

Urte arteko konparaketan, kontratazio esanguratsua duten jatorrien artean, Europako Erkidegotik etorritako pertsonen kontratazioa baino ez da murriztu, % 2,2 jaitsi baita (11 pertsona gutxiago kontratatu dira). Aldiz, balio absolutuetan zein erlatiboetan gehien hazi den taldea Latinoamerikatik etorritako pertsonena izan da (+672 pertsona, eta % 16,7ko igoera).

• PRESTAKUNTZA-MAILA

Kontratatutako pertsonen % 42,6k oinarrizko prestakuntza-maila du, gehienez ere derrigorrezko hezkuntza egin dute, % 22,3k batxilergoko ikasketak ditu, % 17,5ek unibertsitate ikasketak eta % 17,2k LHko ikasketak.

Hileko erreferentzian, murriztu egin da unibertsitateko (-49 pertsona, -% 0,7) eta batxilergoko (-417 pertsona, -% 4,4) profiletako pertsonen kontratazioa. Aitzitik, gora egin du derrigorrezko ikasketak (334 pertsona gehiago, % 2 gehiago) eta LH ikasketak (+163 pertsona, + % 2,4) dituzten pertsonen kontratazioak.

Urte arteko konparaketan, handitu egin dira ikasketa-profil guztietako kontratatuak. Kopuru absolutuetan zein erlatiboetan, derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonen kontratazioan gertatu da igoera handiena, 1.375 pertsona gehiago eta % 8,7ko ehuneko-hazkundearekin.

KONTRATUEN KOPURUAK

Apirilean, EAEn 55.372 kontratu sinatu dira, horietatik 13.565 mugagabeak izan dira (guztietatik % 24,5). Ehuneko horrek 2022. urtearen hasieran lan-erreforma onartu eta aplikatu ondoren izandako joerari jarraitzen zaio. 0,1 puntu jaitsi da martxoarekin alderatuta, eta 0,9 puntu 2023ko apirilarekin alderatuta. Mugagabeen ehunekoa handiagoa da gizonen artean: % 27,1 emakumeen artean baino (% 22).

Kontratazioa % 0,2 murriztu da martxoaren aldean (132 kontratu gutxiago). 2023ko apirilarekin alderatuz, % 7,2 igo da (3.712 kontratu gehiago).

• JARDUERA EKONOMIKOA

Joan den hilabetearekin alderatuta, kontratazioan jaitsiera handienak izan dituzten jarduerak informazioa eta komunikazioa (-937) eta administrazio-jarduerak (-798) izan dira; bien artean jaitsiera guztien % 78 dira. Aitzitik, igoera handienak garraioan (+554) eta merkataritzan (+507) izan dira.

Aurreko urtearekin alderatuta, jarduera gehienetan kontratazioak gora egin du. Igoerarik handienak profil hauen kontratazioan izan dira: informazioa (+935), ostalaritza (+863) eta manufaktura-industria (+746). Aitzitik, gehien murrizten diren jarduerak administratiboak (-491) eta osasungintzakoak (-452) izan dira.

• OKUPAZIOA

Hil arteko bilakaeran, kontratazioak gora egin du okupazio gehienetan; baina nabarmentzekoa da teknikari zientifikoen profilak behera egin duela, mota honetako 2.421 kontratu gutxiago sinatu baitira (% 25,7ko murrizketa). Balio absolutuetan, zerbitzu-kualifikatuetan igo da gehien kontratazioa, 1.253 kontratutan, % 7,5eko igoerarekin; balio erlatiboetan, berriz, enplegatu administrarien kontratuetan hazi da gehien, % 13,7ko hazkundea izan baitu (+412 kontratu).

Aurreko urteko hilabete beraren aldean, kontratazioak gora egin du okupazio guztietan, lehen mailako kualifikatuetan (-42 kontratu, -%19,7) eta zuzendarietan (-3 kontratu, -%2,1) izan ezik. Igoera handiena, balio absolutuetan, zerbitzuetako kualifikatuek izan dute, 1.646 kontratu

gehiagorekin (+%10); balio erlatiboetan, igoerarik handiena enplegatu administrarien kontratazioak izan du, % 22,7ko igoerarekin (+1.646 kontratu).

• KONTRATAZIO-MOTA

Hilabete honetan, berriz ere, mugagabeen tasa nabarmentzen da; izan ere, 2022ra arte % 10etik behera egon ohi zen tasa hau, eta kasu honetan % 24,5era iritsi da. % 20tik gorako tasak ohikoak izaten ari dira 2022ko hasieran aplikatutako lan-erreformaren ondoren.

2024ko apirilean sinatutako kontratuen % 37,3 lanaldi partzialekoak dira (aurreko hilean baino 2 puntu gehiago), % 47,5 emakumeen kasuan eta % 26,6 gizonen kasuan. Kontratazio-mota horren arazo nagusia da gehienak ez direla borondatezkoak, eta agerian uzten dutela ezarritako kontratu-harremanaren kalitatea eskasa dela. Kontratu mugagabeen % 32,9 lanaldi partzialekoak dira.

Lanaldi partzialeko kontratazioaren ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak, kontratazio-balio esanguratsua duten jardueren artean, honako hauek dira: ostalaritza (% 65,3), administrazio-jarduerak (% 49,8) eta hezkuntza (% 49,1). Okupazio-profilen arabera, lanaldi partzialeko kontratazioagatik gehien nabarmentzen dena zerbitzuetako langileena da (% 55), eta gutxien, lehen sektoreko langile kualifikatuena (% 7,6).

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoen arabera, kontratazioaren % 18,5 Araban sinatu da, % 49,7 Bizkaian eta gainerako % 31,9 Gipuzkoan.

Hil honetan, Araban 925 kontratu gutxiago sinatu dira (% 8,3ko jaitsiera), Lurralde Historiko hau da kopuru hori murriztu duen bakarra; aitzitik, Gipuzkoan 764 kontratu gehiago (% 4,5 ko igoera) eta Bizkaian 29 kontratu gehiago (+%0,1) sinatu dira.

Aurreko urtearekin alderatuta, Araban 36 kontratu gutxiago sinatu dira (% 0,4ko jaitsiera), kontratazioa murriztu den lurralde bakarra da; Bizkaian % 7,9 igo da (2.018 kontratu gehiago) eta Gipuzkoan 1.730 kontratu gehiago egin dira (% 10,9 gehiago).

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

Apirilean sinatutako kontratuen % 24 aldi baterako laneko enpresen bidez egin dira. ABLEen bidezko kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonen artean emakumeen artean baino; lehenengoen artean, kontratuen % 32 enpresa mota horren bidez egin da, eta emakumeen artean, berriz, kontratazioen % 16 soilik izan dira ABLE bidez.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, ABLE baten bidez egindako kontratazioak % 10,4 egin du behera, eta, 2023ko apirilarekin alderatuta, % 3,9 egin du gora (+363 kontratu).


Urtarriletik apirilera kontratu mugagabeen metatua
70.000
60.000
50.000
40.000
30.000
20.000
10.000
0
19.856
21.466
23.991
27.429
26.217
21.295
25.259
51.193
58.725
56.550
2015
2016
2017
2018
2019
2020
2021
2022
2023
2024

Kontratuen erregistroa 2024ko apirilean

		Api-2024	Mar-2024	Api-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Mota	Mugagabea	13.565	13.664	13.141	-99	-0,72	424	3,2
	Aldi baterakoa	41.807	41.840	38.519	-33	-0,08	3.288	8,5
	Guztira	55.372	55.504	51.660	-132	-0,24	3.712	7,2
	Mugagabeen %	24,5%	24,6%	25,4%	-0,12		-0,94	
Sexua	Gizona	26.952	27.385	25.042	-433	-1,58	1.910	7,6
	Emakumea	28.420	28.119	26.618	301	1,07	1.802	6,8
	Guztira	55.372	55.504	51.660	-132	-0,24	3.712	7,2
	Emakumeen %	51,3%	50,7%	51,5%	0,66		-0,20	
Mugagabea	Gizona	7.306	7.150	7.097	156	2,18	209	2,9
	Emakumea	6.259	6.514	6.044	-255	-3,91	215	3,6
	Guztira	13.565	13.664	13.141	-99	-0,72	424	3,2
Aldi baterakoa	Gizona	19.646	20.235	17.945	-589	-2,91	1.701	9,5
	Emakumea	22.161	21.605	20.574	556	2,57	1.587	7,7
	Guztira	41.807	41.840	38.519	-33	-0,08	3.288	8,5
Guztira	Gizona	26.952	27.385	25.042	-433	-1,58	1.910	7,6
	Emakumea	28.420	28.119	26.618	301	1,07	1.802	6,8
	Guztira	55.372	55.504	51.660	-132	-0,24	3.712	7,2
Mugagabeen tasa	Gizona	27,1%	26,1%	28,3%	1,00		-1,23	
	Emakumea	22,0%	23,2%	22,7%	-1,14		-0,68	
	Guztira	24,5%	24,6%	25,4%	-0,12		-0,94	
Lanaldi partziala	Mugagabea	4.460	4.392	4.020	68	1,55	440	10,9
	Aldi baterakoa	16.187	15.210	13.826	977	6,42	2.361	17,1
	Beste batzuk	34.725	35.902	33.814	-1.177	-3,28	911	2,7
	Guztira	55.372	55.504	51.660	-132	-0,24	3.712	7,2
	LP tasa	37,3%	35,3%	34,5%	1,97		2,74	
Lanaldi partziala	Gizona	7.158	6.703	5.821	455	6,79	1.337	23,0
	Emakumea	13.489	12.899	12.025	590	4,57	1.464	12,2
	Guztira	20.647	19.602	17.846	1.045	5,33	2.801	15,7
	Gizonen tasa	26,6%	24,5%	23,2%	2,08		3,31	
	Emakumeen tasa	47,5%	45,9%	45,2%	1,59		2,29	
	Tasa guztira	37,3%	35,3%	34,5%	1,97		2,74	
Prestakuntzakoak	Prestakuntzakoak	31	18	11	13	72,22	20	181,8
	Beste batzuk	55.341	55.486	51.649	-145	-0,26	3.692	7,1
	Guztira	55.372	55.504	51.660	-132	-0,24	3.712	7,2
	Prestakuntzakoak (%)	0,1%	0,0%	0,0%	0,02		0,03	
L. historikoa	Araba	10.228	11.153	10.264	-925	-8,29	-36	-0,4
	Bizkaia	27.502	27.473	25.484	29	0,11	2.018	7,9
	Gipuzkoa	17.642	16.878	15.912	764	4,53	1.730	10,9
	EAE	55.372	55.504	51.660	-132	-0,24	3.712	7,2
Gizonak	Lehen sektorea	375	383	365	-8	-2,09	10	2,7
	Erauzketa-industriak	11	4	4	7	175,00	7	175,0
	Manufaktura-industriak	5.998	5.772	5.604	226	3,92	394	7,0
	Energia	4	7	13	-3	-42,86	-9	-69,2
	Ura	250	231	225	19	8,23	25	11,1
	Eraikuntza	1.440	1.453	1.543	-13	-0,89	-103	-6,7
	Merkataritza	2.739	2.551	2.460	188	7,37	279	11,3
	Garraioa	3.336	3.097	3.499	239	7,72	-163	-4,7
	Ostalaritza	3.370	3.080	2.787	290	9,42	583	20,9
	Informazioa eta komunikazioa	1.573	2.297	1.071	-724	-31,52	502	46,9
	Finantzak eta aseguruak	127	118	89	9	7,63	38	42,7
	Higiezinen sektorea	24	31	20	-7	-22,58	4	20,0
	Zientifikoak eta teknikoak	682	682	679	0	0,00	3	0,4
	Administraziokoak	2.236	2.782	2.586	-546	-19,63	-350	-13,5
	Administrazio publikoa	349	434	242	-85	-19,59	107	44,2
	Hezkuntza	926	870	757	56	6,44	169	22,3

Kontratuen erregistroa 2024ko apirilean

		Api-2024	Mar-2024	Api-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	1.412	1.518	1.552	-106	-6,98	-140	-9,0
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.637	1.533	1.152	104	6,78	485	42,1
	Beste zerbitzu batzuk	406	465	302	-59	-12,69	104	34,4
	Etxeetako jarduerak	55	77	90	-22	-28,57	-35	-38,9
	Lurraldez kanpoko erakundeak	2	0	2	2		0	0,0
	Guztira	26.952	27.385	25.042	-433	-1,58	1.910	7,6
Emakumeak	Lehen sektorea	62	71	35	-9	-12,68	27	77,1
	Erauzketa-industriak	3	3	1	0	0,00	2	200,0
	Manufaktura-industriak	2.237	2.202	1.885	35	1,59	352	18,7
	Energia	11	13	10	-2	-15,38	1	10,0
	Ura	35	36	43	-1	-2,78	-8	-18,6
	Eraikuntza	123	118	127	5	4,24	-4	-3,1
	Merkataritza	3.704	3.385	3.420	319	9,42	284	8,3
	Garraioa	919	604	737	315	52,15	182	24,7
	Ostalaritza	5.214	5.267	4.934	-53	-1,01	280	5,7
	Informazioa eta komunikazioa	1.187	1.400	754	-213	-15,21	433	57,4
	Finantzak eta aseguruak	143	139	113	4	2,88	30	26,5
	Higiezinen sektorea	55	59	41	-4	-6,78	14	34,1
	Zientifikoak eta teknikoak	788	779	772	9	1,16	16	2,1
	Administraziokoak	2.889	3.141	3.030	-252	-8,02	-141	-4,7
	Administrazio publikoa	561	532	438	29	5,45	123	28,1
	Hezkuntza	2.639	2.458	2.177	181	7,36	462	21,2
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	5.282	5.301	5.594	-19	-0,36	-312	-5,6
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.105	966	866	139	14,39	239	27,6
	Beste zerbitzu batzuk	560	636	564	-76	-11,95	-4	-0,7
	Etxeetako jarduerak	900	1.003	1.072	-103	-10,27	-172	-16,0
	Lurraldez kanpoko erakundeak	3	6	5	-3	-50,00	-2	-40,0
	Guztira	28.420	28.119	26.618	301	1,07	1.802	6,8
Guztira	Lehen sektorea	437	454	400	-17	-3,74	37	9,3
	Erauzketa-industriak	14	7	5	7	100,00	9	180,0
	Manufaktura-industriak	8.235	7.974	7.489	261	3,27	746	10,0
	Energia	15	20	23	-5	-25,00	-8	-34,8
	Ura	285	267	268	18	6,74	17	6,3
	Eraikuntza	1.563	1.571	1.670	-8	-0,51	-107	-6,4
	Merkataritza	6.443	5.936	5.880	507	8,54	563	9,6
	Garraioa	4.255	3.701	4.236	554	14,97	19	0,4
	Ostalaritza	8.584	8.347	7.721	237	2,84	863	11,2
	Informazioa eta komunikazioa	2.760	3.697	1.825	-937	-25,34	935	51,2
	Finantzak eta aseguruak	270	257	202	13	5,06	68	33,7
	Higiezinen sektorea	79	90	61	-11	-12,22	18	29,5
	Zientifikoak eta teknikoak	1.470	1.461	1.451	9	0,62	19	1,3
	Administraziokoak	5.125	5.923	5.616	-798	-13,47	-491	-8,7
	Administrazio publikoa	910	966	680	-56	-5,80	230	33,8
	Hezkuntza	3.565	3.328	2.934	237	7,12	631	21,5
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	6.694	6.819	7.146	-125	-1,83	-452	-6,3
	Arte- eta jolas-jarduerak	2.742	2.499	2.018	243	9,72	724	35,9
	Beste zerbitzu batzuk	966	1.101	866	-135	-12,26	100	11,5
	Etxeetako jarduerak	955	1.080	1.162	-125	-11,57	-207	-17,8
	Lurraldez kanpoko erakundeak	5	6	7	-1	-16,67	-2	-28,6
	Guztira	55.372	55.504	51.660	-132	-0,24	3.712	7,2
Gizonak	<>	1	1	1	0	0,00	0	0,0
	Zuzendaritza	88	109	89	-21	-19,27	-1	-1,1
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	2.623	4.015	2.647	-1.392	-34,67	-24	-0,9
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	2.890	3.091	2.990	-201	-6,50	-100	-3,3
	Administrazioko langileak	1.254	1.035	967	219	21,16	287	29,7

Kontratuen erregistroa 2024ko apirilean

		Api-2024	Mar-2024	Api-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Zerbitzuetako kualifikatuak	6.074	5.517	5.237	557	10,10	837	16,0
	Oinarrizko kualifikatuak	156	213	197	-57	-26,76	-41	-20,8
	Industriako kualifikatuak	2.939	2.841	2.774	98	3,45	165	5,9
	Operadoreak	3.601	3.453	3.208	148	4,29	393	12,3
	Kualifikatu gabeak	7.326	7.110	6.932	216	3,04	394	5,7
	Guztira	26.952	27.385	25.042	-433	-1,58	1.910	7,6
Emakumeak	<>	0	0	0	0,00		0,00	
	Zuzendaritza	53	52	55	1	1,92	-2	-3,6
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	4.369	5.398	4.274	-1.029	-19,06	95	2,2
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	2.272	2.182	2.126	90	4,12	146	6,9
	Administrazioko langileak	2.167	1.974	1.821	193	9,78	346	19,0
	Zerbitzuetako kualifikatuak	11.991	11.295	11.182	696	6,16	809	7,2
	Oinarrizko kualifikatuak	15	22	16	-7	-31,82	-1	-6,3
	Industriako kualifikatuak	473	336	370	137	40,77	103	27,8
	Operadoreak	632	595	585	37	6,22	47	8,0
	Kualifikatu gabeak	6.448	6.265	6.189	183	2,92	259	4,2
	Guztira	28.420	28.119	26.618	301	1,07	1.802	6,8
Guztira	<>	1	1	1	0	0,00	0	0,0
	Zuzendaritza	141	161	144	-20	-12,42	-3	-2,1
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	6.992	9.413	6.921	-2.421	-25,72	71	1,0
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	5.162	5.273	5.116	-111	-2,11	46	0,9
	Administrazioko langileak	3.421	3.009	2.788	412	13,69	633	22,7
	Zerbitzuetako kualifikatuak	18.065	16.812	16.419	1.253	7,45	1.646	10,0
	Oinarrizko kualifikatuak	171	235	213	-64	-27,23	-42	-19,7
	Industriako kualifikatuak	3.412	3.177	3.144	235	7,40	268	8,5
	Operadoreak	4.233	4.048	3.793	185	4,57	440	11,6
	Kualifikatu gabeak	13.774	13.375	13.121	399	2,98	653	5,0
	Guztira	55.372	55.504	51.660	-132	-0,24	3.712	7,2
ABLE	Gizonak	6.414	7.133	6.314	-719	-10,08	100	1,6
	Emakumeak	3.251	3.648	2.988	-397	-10,88	263	8,8
	Guztira	9.665	10.781	9.302	-1.116	-10,35	363	3,9
Pertsona-kopurua	Gizonak	20.049	20.103	18.848	-54	-0,27	1.201	6,4
	Emakumeak	20.261	20.217	19.102	44	0,22	1.159	6,1
	Guztira	40.310	40.320	37.950	-10	-0,02	2.360	6,2
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	17.174	16.840	15.799	334	1,98	1.375	8,7
	Batxilergoa	8.988	9.405	8.757	-417	-4,43	231	2,6
	LHko ikasketak	6.920	6.757	6.486	163	2,41	434	6,7
	Unibertsitate-ikasketak	7.068	7.117	6.622	-49	-0,69	446	6,7
	Atzerritarra	8.428	8.290	7.456	138	1,66	972	13,0
	Bertakoa	31.882	32.030	30.494	-148	-0,46	1.388	4,6
	<>	15	19	27	-4	-21,05	-12	-44,4
	Aberrigabea	45	51	32	-6	-11,76	13	40,6
	Europako Erkidegoa	493	518	504	-25	-4,83	-11	-2,2
	Erkidegokoa ez den Europa	590	604	591	-14	-2,32	-1	-0,2
	Txina	143	101	93	42	41,58	50	53,8
	Japonia	4	2	6	2	100,00	-2	-33,3
	Asiako beste herrialde bat	426	456	391	-30	-6,58	35	9,0
	Saharaz hegoaldeko Afrika	940	821	818	119	14,49	122	14,9
	Afrikako iparraldea	1.068	1.048	968	20	1,91	100	10,3
	Ipar Amerika	14	16	8	-2	-12,50	6	75,0
	Erdialdeko eta Hego Amerika	4.687	4.650	4.015	37	0,80	672	16,7
	Ozeania	3	4	3	-1	-25,00	0	0,0
	Atzerritarrak guztira	8.428	8.290	7.456	138	1,66	972	13,0